

S.D.R.C. BETI GAZTE K.J.K.E.

Lesakako BTT Ibilaldia 2023

2023ko irailaren 17an



LESAKAKO BTT IBILALDIA 2023

ARAUDIA

1. PROBAREN DATA, LEKUA ETA MODALITATEA.

Lesakako BTT Ibilaldia 2023 Lesakako mendietatik (Nafarroa) igarotzen den BTT proba ez lehiakorra da. 2023ko irailaren 17an egingo da.

2. IBILBIDEA.

Parte-hartzaileek bi ibilbide zirkularren artean aukeratu ahal izanen dute.

Ibilbide luzeak 37 km eta 1.414 metroko desnibela izanen ditu, eta laburrak 23 km eta 770 metroko desnibela. Hona hemen ibilbideen trakak:

* Ibilbide luzea: <https://es.wikiloc.com/rutas-mountain-bike/lesaka-btt-2022-luzea-112277164>

* Ibilbide laburra: <https://es.wikiloc.com/rutas-mountain-bike/lesaka-btt-2022-motza-112139327>

3. IRTEERA.

Probaren irteera 09: 00etan izanen da Lesakako Plaza Zaharretik (Nafarroa).

4. IZEN-EMATEAK, DORTSALAK JASOTZEA ETA SALNEURRIAK.

Internet bidez soilik, irailaren 15era arte (23: 59), www.kirolprobak.com webgunean

Dortsalen bilketa proba egunean bertan izanen da Plaza Zaharrean 8: 00etatik aitzinera.



Salneurriak hauexek dira:

MOTA	SALNEURRIA
Beti Gazteko BAZKIDE eta UCI FEDERATUA	12 €
Beti Gazteko BAZKIDE eta EZ FEDERATUA	15 €
Beti Gazteko EZ BAZKIDE eta UCI FEDERATUA	17 €
Beti Gazteko EZ BAZKIDE eta EZ FEDERATUA	20 €

5. ADINA ETA BAIMENA.

Adingabe guztiek guraso edo tutorearen baimena aurkeztu beharko dute proban parte hartzeko. Horrez gain, 16 urtetik behekoek arduradun batekin egin beharko dute ibilbidea.

Baimenaren inprimakia klubaren webgunean egonen da eskuragarri, eta antolakuntzari eman beharko zaio, bai probaren egunean bertan bai lehenagotik kirola@betigazte.net helbidera posta elektronikoz bidaliz.

6. ARAUDIA BETETZEA.

Antolakuntzak ez ditu bere gain hartzen gerta daitezkeen istripuak.

Derrigorrezkoa da ibilbide osoan zehar kaskoa erabiltzea

Debekatuta dago proban parte hartzea arauzko dortsala eraman gabe eta bertan inskribatuta egon gabe. Txirrindulariren batek hala egiten badu, eta istripuren bat badu edo eragiten badu, bera izango da istripuaren arduradun gorena, eta probaren antolakuntzak ez du bere gain hartuko bere buruari edo hirugarrenei eragindako kalteen erantzunkizuna.

Antolakuntzak ibilbideei, ordutegiei edota abarrei buruzko aldaketak egiteko eskubidea gordetzen du, arrazoiren batengatik beharrezkoa dela uste duenean.

Proba uztea erabakitzen duen parte-hartzaile orok antolakuntzari jakinarazi beharko dio, emango zaion telefonora deituz edo ibilbidean zehar dagoen edozein laguntzaileri berri emanez.

S.D.R.C. BETI GAZTE K.J.K.E.

Lesakako BTT Ibilaldia 2023

2023ko irailaren 17an



Frogan inskribatze hutsak araudi hau onartzea eta bertan sortutako kalteen ondorioz antolakuntzaren aurkako eskubide guziei uko egitea dakar.

7. OSASUN-LAGUNTZA, DUTXAK ETA BIZIKLETEN GARBIKETA.

Sorospen-zerbitzuak izanen dira puntu estrategikoetan.

Behar bezala seinaleztatutako aldagela eta dutxak egonen dira.

Parte-hartzaile guztiek laguntza eman behar dute istripuren bat gertatuz gero, eta egoera horren berri eman behar dute igarotze-kontroletan.

8. IRUDI ESKUBIDEAK.

Parte-hartzaileek baimena ematen diete antolakuntzari eta bere babesleei probaren tes-tuinguruan grabatutako argazkiak eta bideoak askatasunez erabili eta argitaratzeko.

*OHARRA: proba ez lehiakorra denez, bizikleta elektrikoekin parte hartzeko aukera ematen da.

Araudian jasota ez dagoen edozein gai probaren antolakuntzak ebatziko du.

Lesakan, 2023ko uztailaren 17an